

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Agur eta ohore, Gabi!

Iñigo Rubert Enriquez •
PASAI SAN PEDRO

Beharbada haserretuko zinateke, gutun hau irakurtzerik bazenu. Izan ere, xumetasuna izan baita zure nortasunaren ezaugarrietako bat. Baina, laguna, herri honetan iraultzaileak publikoki omentzeko ohitura dugu, nahiz eta batzuk saihestu nahian dabiltzan.

Bai, iraultzailea diot, nahiz eta zuk hitz potoloen zale ez izan, edo horregatik hain zuzen ere. Gure azken eztabaidetarikoa batean aipatu genuenez, iraultzaile izateak ez baitu esan nahi perfektu izatea, baizik eta perfekzio absoluturik ez dagoela onartuz, kontraesanak era askatzaile batean gainditzan ahalegintzean datzala.

Kontraesan horietako bat zenuen, bizitzarekiko, naturarekiko eta gizakiekiko maitasun sakon batetik, indarkeria iraultzailea zilegi eta beharrezkoa jotzea. Sekulan ez dute hori ulertuko hainbeste gorrotatzen zenuen hipokrisiaren eta moral bikoitzaren katedradunek. Sekulan ez baitote zuk bezalako jende xumeari entzuten.

Kontraesanak eta zalantzak, perfektiorik ez eta egia orokor eta absoluturik ere ez dagoela zenekielako. Beti eztabaidan, beta aztertzen, beti bilatzen eta beti ekiten. Zeren eta zalantza horiek ez baitzaituzte paralisira eraman, eta inoren zain egon gabe lanean jarri zara beti.

Hegazkinik hartu gabe izan zara internazionalista, munduko edozein puntatan gertatutako zapalkuntza barrenbarrean sentitu duzulako, urrun zein gertukoak, handiak zein txikiak, «etxe-koak» zein «kanpokoak». Libururik argitaratu gabe izan zara idazlea, zure burua ez zelako nahikoa zure ideiak gordetze-ko. Museorik gabeko artista izan zara, zure artea kaleko oihua bilakatu duzulako. Mikrofonorik gabeko hizlaria izan zara, lagunekin hitz egiteko ez baita mikrofonorik behar. Eta euskara men-



galdeiozu...

Zein erantzun ematen diezu Arabako EB-IUk egindako azken salaketei? Zatiketarik egon daiteke?

Maite Arzuaga (Tolosa)

Formazio politiko guztietan oso prozesu zaila da hauteskundeetarako zerrendak osatzea, eta Ezker Batua ez da salbuespena. Ez dute funtsik egindako salaketek, eta ez dute aparteko garrantzirik. Zatiketa arriskurik ez dago; izan ere, gehiengo zabal batek babestu ditu hautagaitzak, eta Ezker Batuaren estrategiaren barruan daude, elkarriketaren eta gizarte justiziaren alde lan egiteko.



JAVIER MADRAZO

EB-IUko lehendakariagaia



EAEko hauteskundeak

Maiatzaren 13ko EAEko hauteskundeetara aurkezten diren alderdi politikoetako hautagaiekin jarraituz, apirilaren 9tik aurrera **Manuel Huertas • PSE-EEko zerrendaburua** izango dugu. Bidali zuren galderak ordurako.

peratu gabe izan zara euskaltzale, inoiz ez baituzu etsi horretan trebatzeko ahaleginean.

Poeta ere, izan zara. Maitasunezko bertso andanak utzi baitituzu ezagutu zaituztegun guztion bihotzetan. Horra hor polizia guztien porrota, sekulan ezingo dutela muga-bide hori kontrolatu, eta zure elkartasun eta askatasun kontrabandoa aurrera jarraituko du, ahoz aho, eskuz esku, muxuz muxu eta kolpez kolpe. Bi muxu, boluntario gaztea.

Baztango igerilekua

Miguel Uriarte Ballarena • BARAÑAIN

Pasa den martxoaren 25an, *Diario de Noticias* egunkarian holako berria irakur genezakeen: «Baztango Udalak igerileku estalia eta klimatizatua eraikiko du».

Artikulu horretan, orain duela 25 urte eraikitako piszina dituen arazoak nola konponduko dituzten erraten ziguten. Berriak zioenez, dagoena desegin eta hor piszina txikiagoa eta hidromasaje berri bat eraikiz, baina hori gutxi bada neguan erabilgarriago izango dela sabai teleskopiko bat paratuz.

Neguan erabiltzeko igerileku bat egoitea ez dago gaizki, baina nire galdera hau da: igerileku estalia egiteko, dagoena kendu behar da? Kendu, zeren orain dagoena ia erdiraino txikitzean udako baldintzak erabat okertuko lirateke. Beste aldetik, pribatu batek igerileku estali bat egiteko prest dagoenean Udalak ere egin behar du?

Berrian ere, Elizondo eskualdeko kirol burua izango zela azaltzen zitzaigun, baina hori baieztatzeke, eskualdean dagoen kirol infrastruktura kontuan hartu dute? Ez al da Lekaroz instalazio

kopuru eta kontzentrazio aldetik eskualdeko kirol instalazio garrantzitsuenak (futbol, errugbi, saskibaloia, eskubaloia, atletismo, tenis, futbito, frontoi, igerileku eta abar)?

Behin betiko erabakia hartu gabe dagoenez, zergatik ez da berriz hausnartzen beharraz eta kokapenez? Eta azkenean diru publikoarekin eginez gero, ez al digu berdin udal instalazioak edo Nafar Gobernuak instalazioak izatea?

Eusko Jaurlaritzako oposizioak

Itziar Arana Urkixo • DURANGO

Administrari laguntzaileen kidegoaren ariketa praktikoa 154 lagunok, «kodeatze erru» bat dela eta, errepikatu egin behar dugu. HAAEk dituen medio ekonomiko eta teknikoak kontuan hartuta, zaila egiten zait ulertzea nola gerta daitezkeen mota honetako «erruak»: ez da ahuntzaren gauerdiko eztula hautaketa prozesu hauetan erabakitzen dena, gaur egun horren eskas diren lanpostuak baizik. Horrek guztiak beste mota bateko arazoak egon ez ote diren pentsatzera eramaten gaitu eta, hori gerta ez dadin, HAAEk argi eta garbi azaldu beharko luke gertatutakoa, zertan datzan zehatz-mehatz «erru» hori, eta zergatik ezkutatzen duen gertatutakoa (otsailaren 24an egin genuen azterketa) orain arte.

Bidalitako eskutitzean, azterketa hemendik bederatzi egunera errepikatzera behartuta gaudela esaten digute, horrela hautagai guztien artean «berdintasuna» bermatzen omen delako. Nire iritziz, «berdintasun» hori bermatzeko, bederatzi egun buruan hautagai guztiok eta ez bakarrik 154ek egin beharko genuke berriro azterketa. Amaitzeko, arduradunei lehenengo eta behin barkamena eskatzea zegokien, baina guk jasotako eskutitzean, tutik ere ez dute aipatu honek guztiak eragiten ari zaizkigun eragozpenen aurrean. Oraingo honetan ere «ardien kulpak bildotsak pagatu».

montxo

